

Bunuze

Aurkibidea

Udalerria: Bunuze

Sarrera



Bunuze Nafarroa
Behereko udalerria da,
eta Oztibarre
eskualdean dago. Herri hauek
ditu mugakide: iparraldetik,
Larزابale-Arroze-Zibitze;
mendebaldetik Ibarrola; ipar-
ekialdetik, Jutsi; eta,
hegoaldetik Donaixti-Ibarre.
Biduze ibaiak udalerria
gurutzatzen du, baita bere
hiru ibai-adarrek ere:
Othalapeko erreka, Babatzeko
erreka eta Hosta ur-handiak.
Laborantza da ekonomiaren
oinarria.

- **Biztanleak:** 159
- **Euskaldunak:** %79,72

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **10**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **10**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Kattalin Bassagaisteguy (1934)



Kattalin Bassagaisteguy, sortzez Etxeber, Bunuze Idiarlean sortu zen. Bizi guzia bertan iragana du, laborantzan. Aita irisartarra zuen, ama berriz etxe horretakoa. Hiru neba-arrebetarik zaharrena. Kattalinek betidanik maite izan duen afizioa apainketa harriena da: mendira joan, maitatu duen harria bildu eta ondotik baratzean edo ezkaratzean apainketa gisa ezartzea. Beñat Bassagaisteguy Ibarlarrarekin ezkondu, eta sei seme ukan dituzte. Besteak beste buhameei buruzko kontaketa egiten du eta garai bateko sendabideei buruzkoa.

Jeanne Doxaran (1921)



Jeanne Ithuralde Doxaran Bünüzen sortu zen 1921eko apirilaren 30ean, Oztibarren. Ama biziki dendari ona zuen, bere baitarik ikasia. Jeannek, "zertifikata" eskuratu bezain laster (12 urtetan), josten ikasi zuen lehenik serorekin, gero ahaide batekin, eta azkenik amarekin (hobekuntza). Oihal saltzaile batekin ezkondu ondoan, bikoteak saltegi bat erosi zuen Donapaleun. Han ari izan da lanean Jeanne bere bizi guzian. Bi haurren ama da. Gaur egun erretretan izanik ere, segitzen du josten eta tindatzen plazerrarentzat.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Hautzaroa Bunuzen 1920 hamarkadan (BUN-002/001)

Jeanne Bunuzen sortua da 1921eko apirilaren 30ean ; 7 haurride ziren. Herriko eskolan ibili da eta ongi oroit da zer ikasten zuten... morala, besteak beste. Hamabi urtetan zertifikata eskuraturik, « ouvroir » batean hasi zen. Serorekin ikasi zuen lisatzen, brodazen eta josten. Handik itzultzean, etxean , aitamena okingedi-epizerian laguntzen zuen.

2. Etxez-etxe ogi saltzen 1940 hamarkadan (BUN-002/002)

Jeannen aitak okindegi bat eraiki zuen Bunuzeko plazan. 18 urtetan, Jeanne-k autoko permisa iraganik, etxez-etxe ibiltzen zen 2 kiloko ogiak saltzen. Oroitzapen onak atxikitzen ditu urte bat eta erdiz egin duen lanaz.

3. Bizi guzian dendari. (BUN-002/003)

Ama dendaria zuen, dendari ona eta adreta. Harekin ikasi ditu josteko erabiltzen diren pundu ezberdinak. Funtsean, nahiz xahartua izan, oraino jende frangok josteak galdegiten dizkiote.

4. Munduko bigarren gerla giroa Oztibarren (BUN-002/004)

18 urte zituelarik hasi zen gerla. Bunuze gunen librea zen, Larzabale aldiz eremu okupatuan. Ogia etxeetara heltzearekin, gertatzen zitzaion kontrolatua izaita. Hortaz bestalde, jendea lagundu du, gordezka, Maulera heltzen. Epizeriara heldu zen jendeak ez zuen nahi zuenaren erosteko eskubiderik, tiketa batzuren truk egiten zituzten erosketak.

5. Bestak eta musika 1940 hamarkadan (BUN-002/005)

Jeannen anaiek esku-soinua jotzen ikasi zuten. Etxean egiten ziren ezteiak animatzen zituzten. Gazte herriko bestetan parte hartzen zuten, haatik, goizik etxera sartuz. 18-19 urteak arte, « fille de Marie » ziren neskek ez zuten besta egiteko baimenik.

6. Lehen autoa Oztibarren 1930 hamarkadan (BUN-002/006)

Oztibarreko lehen autoa 1930 inguruan agertu zen Bunuzen. Biradera itzulikatuz abiatzen zen eta erabilpena biziki zaila zen neska batentzat.

7. Oihal saltzaile eta dendari Donapaleun (1940ko hamarkadatik goiti) (BUN-002/007)

Jeanne, Pierre Doxaran oihal saltzailearekin esposatu zen 21 urtetan. Kuplea Donapaleun plantatu zen. Senarra etxez-etxe ibiltzen zen oihala saltzen eta egin behar ziren jantzientzat neurriak hartzen. Jeannek aldiz, beste dendari batzuen laguntzarekin, jantziak edo behi estalgiak prestatzen zituen. Ordu haietan, dendariak gehien egiten zituzten josteak : flanelak, atorrak, kaltxoinak, behi estalgiak. Hauetaz bestalde ere espos arropak egiten zituzten eta esposanderearen beztitzera joaiten etxeetara.

8. Jantzi modaren segitzea (BUN-002/008)

Jantzi ederren egiteko liburuetan hartzen zituzten modeloak. Pariseko saloin batzuetan ere ibiltzen ziren ideiak hartzeko eta moda segitzeko. Behin, Parisen zelarik Donapaleura heldu zen oihal saltzaile bat topatu zuen. Judu honek erakutsi zion bere lantegia, lurpean gordea.

9. Janzteko prestak (BUN-002/009)

1960 hamarkadan, hasi ziren prest-prestak ziren jantzien saltzen. Dendariaren lana doi bat aldatu zen. Arropen egiteaz bestalde, laburtzen edo petatxatzen gehiago lan zuten.

10. Amikuzeko dendari baten denbora pasak (BUN-002/010)

Igandetan, josteak utzirik, tindatzen aritzen da ; tindatzeak edo eskulanak gustukoak ditu. Erakusketa batzuetan ere parte hartu du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com